

**IESO  
IÑAKI OCHOA DE OLZA  
DBHI**



# ELKARBIZITZA PLANA

## 1. Elkarbizitza planaren helburu orokorrak:

- Ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua erraztu eta harreman positiboetarako giroa ezarri beharra, erantzukizun eta ahaleginaren hezkuntzaren kontzeptuan oinarrituta.
- Elkarbizitza positiboa gauzatzeko bidean, hezkuntza komunitatearen parte hartzea.
- Gatazkei aurre hartzea eta modu baketsuan konpontzeko kultura, elkarrizketan oinarritua, bultzatzea, berdinen arteko bitartekotza formala eta ez formala erabiliz.
- Pertsona guztien benetako berdintasuna zailtzen duten traba guztiak kentzea eta emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren erabateko berdintasuna sustatzea
- Tratu berdinen printzipioa sartzea, jokabide sexistengatik, arrazistengatik, xenofoboengatik edo erlijioaren kontrakoengatik edo horiei loturiko estereotipo sozialetan oinarritutako jokabideengatik bazterkeria edo desberdintasunak izatea saihestuz.
- Elkarbizitza heziketa planifikatu eta ikasle guztiak oinarrizko gaitasunetan prestatzea, bereziki Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna garatzea: komunikazio eraginkorra, gatazken erresoluzioa, bitartekarien prestakuntza, hezkidetzak, Sexu-afektibo heziketa, drogen eta genero indarkeriaren prebentzioa.

## 2. Garatzeko abiapuntuak:

- Gizakiaren eskubideak Aldarrikapen Unibertsala
- Indarrean dagoen legedia, eta bereziki 47/2010 Foru Dekretua Nafarroako ikastetxeko elkarbizitza eta ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituen Foru Dekretua.

## 3. Urteko lanaren eskema

Elkarbizitzaren arauditik abiatuta elkarbizitzaren komisioak garatu eta koordinatu behar duen lana honakoa da:

- Irakasleen informazioa eta formazioa ematea.
- Institutuko elkarbizitzaren diagnostikoa egitea.
- Urteko bizikidetzak plana egitea.
- Bizikidetzak Urteko Plana, irakasleen klaustroak aztertu eta informatu ondoren, Kontseilu Eskolarrak onartzea.
- Aurreikusitako beharren arabera inplikaturiko pertsonen prestaketa koordinatzea.
- Irakasleen klaustroetan eta Kontseilu Eskolarraren bilera guztietan ikastetxeko bizikidetzari buruzko informazioa ematea.
- Planaren garapena.
- Ikastetxeko arauen jarraipena eta aldaketak proposatzea.
- Dagokion urteko memoria egitea.
- Bizikidetzaren inguruan ikastetxeari esan dakizkiokeen txostenak onartzea.

## 4. Hezkuntza komunitatea, eskubideak eta betebeharrak

Honako taldeek osatzen dute gure institutuko hezkuntza komunitatea:

- Ikastetxeko irakasleria, bere egoera administratiboari erreparatu gabe.
- Institutu honetan matrikulatutako ikasleak.
- Ikasleen aita eta amak edo legezko tutoreak, ikasleek beren lehenengo matrikulazioa egiten dutenetik ikastetxetik alde egiten duten arte.
- Irakasle ez diren ikastetxeko langileak.
- Arrazoia edozein dela eta epe laburrean gure hezkuntza komunitatean dauden pertsonak edo

taldeak.

## **IRAKASLEAK ETA IRAKASLE EZ DIREN LANGILEAK**

Irakasleek eta irakasleak ez diren langileek ikastetxeko funtzionamenduan eta eskola jardueretan parte hartzen dute, Eskola Kontseiluan dituzten ordezkarien bitartez. Irakasleek klaustrakide dira eta departamentu kide eta irakasle taldekide gisa ebaluazio saioetan eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoen programazioan parte hartzen dute.

Irakasle ez diren langileek legez onartuta dituzten eskubideez gain, irakasle eta zuzendaritzarekin eten gabeko harremanetan daude, ikastetxeko funtzionamendurako bidezkoak iruditzen zaizkien proposamenak egin ahal izateko.

Bi talde hauen eskubide eta betebeharrak dagozkien lege eta araudietan bilduta daude. Baina honako eskubide hauek azpimarratu nahi ditugu Araudi honetan:

- Errespetuz eta modu egokian tratatuta izatea Hezkuntza komunitateko kide guztien aldetik.
- Bizikidetzat inguruan, beren lanean eragina izan dezakeen guztiaren berri jasotzea.

### **Betebeharrei dagokienez, honakoak azpimarra ditzakegu:**

- Elkarbizitza arauak errespetatu eta ikastetxeko giro egokia, garbitasuna, eraikinaren zaintza eta ordena mantentzeko parte hartzea.
- Hezkuntza Komunitatearen gaineko kideekin errespetua adieraztea.
- Ikasleak tolerantzia eta elkarbizitza demokratikoan haztea, haien pertsonalitatea, kontzientzia etikoa eta erlijiosoa errespetatuz.
- Institutuko arauak eta legezko moduan hartutako akordioak bete eta betearaztea.
- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua ezagutzea eta bere eskoletan eguneroko bizitzan gauzatzea.
- Eskola Kontseiluan onartutako Urteko Planean biltzen diren proposamenak onartzea, irakasleen eskubideen kontra egiten ez badute.

## **Ikasleria**

Ikasleek **47/2010 Foru Dekretuak** biltzen dituen eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

### **Dekretu horrek biltzen dituen eskubideak honakoak dira :**

a) Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea.

b) Osoko prestakuntza jasotzeko eskubidea, bere nortasuna erabat garatzen laguntzen duena. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- b.1) Oinarrizko gaitasunetarako hezkuntza, garapen pertsonala eta gizarte integrazioa ahalbidetzeko.
- b.2) Curriculumaren arlo guztietan ikasleak kalitatezko irizpideekin hezten dituen irakaskuntza.
- b.3) Prestakuntza interes ezberdinetara eta ikasleen ahalmen ezberdinetara egokitutako hezkuntza.
- b.4) Hezkuntza emozionala, pertsonen arteko harremanak egoki bideratzen laguntzen duena.
- b.5) Zientzian eta didaktikaren oinarrizko printzipioetan oinarritutako irakaskuntza jardueren garapena.
- b.6) Prestakuntza etiko eta morala.
- b.7) Eskola eta lanbide orientazioa eta orientazio pertsonala, bakoitzak bere gaitasun, ahalmen eta interesen arabera erabakiak hartzea ahalbidetzen duena.

b.8) Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza aniztasunaren errespeturako prestakuntza.

c) Errespetatua izateko eskubidea. Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

c.1) Intimitatearen errespetua.

c.2) Kontzientzia askatasunaren errespetua, hala nola norberaren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralen errespetua.

c.3) Pertsona guztien aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua, estereotipoetatik eta kanpoko beste baldintza batzuetatik haratago.

c.4) Eraso fisikoen, emozionalen, moralen edo bestelakoen kontrako babesak.

c.5) Elkarbizitza positiboko giroa, jarduerak normal egiteko aukera ematen duena eta errespetua eta elkartasuna sustatzen dituena.

c.6) Konfidentziasuna datu pertsonalen tratamenduan. Irakaskuntzaren eginkizunetarako beharrezkoak izateagatik ikastetxeak biltzen dituen ikasleen datu pertsonalen tratamenduan datuen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen dituzten arau tekniko eta antolaketakoak aplikatuko dira. Datuak lagatzeari dagokionez, datu pertsonalen babesari buruzko legediari jarraikiko zaio. Nolanahi ere, ikastetxeak eskatzen duen informazioa irakaskuntza eta orientazio lanetarako behar-beharrezkoa dena izanen da, eta hezkuntzatik kanpoko beste erabilera batzuetarako ezin izanen da erabili, non ez dagoen familiaren edo ikaslearen, adinez nagusia bada, berriazko baimena.

d) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

d.1) Programazio didaktikoen oinarriko alderdiak ezagutzea: helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluaziorako, kalifikaziorako eta aurrera egiteko irizpideak.

d.2) Bere ikaskuntza prozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzea, baita horren arabera hartzen diren erabakien berri ere.

d.3) Lortutako kalifikazioen eta hartutako erabakien gaineko argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkezteko aukera izatea, hala ebaluazio partzialetan nola azkenekoetan, betiere Hezkuntza Departamentuak ezartzen duenari jarraikiz.

e) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea. Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

e.1) Ikastetxean dituzten ordezkarien bidez edo legez eratuta dauden ikasleen elkarten bidez parte hartzea.

e.2) Adierazpen askatasuna. Bere iritziak errespetuz adierazteko aukera, baldin eta iritzi horiek Giza Eskubideen eta balio demokratikoen esparruaren barrenean badaude eta ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxearen izaera errespetatzen badituzte. Ikastetxeek, nor bere Elkarbizitzaren Erregelamenduan, eskubide hori erabiltzeko modua, gunek eta tokiak arautuko dituzte.

e.3) Ikastetxean biltzea. Ikastetxeek, Elkarbizitzaren Erregelamendua prestatzean, ikasleek eskubide hau erabiltzeko baldintzak ezarriko dituzte.

e.4) Elkarrekin osatzea. Ikasleek elkarrekin osatzeko eskubidea dute, indarreko legediari jarraikiz.

e.5) Adiskidetze eta bitartekaritza bideak erabiltzea gatazkak konpontzeko hezkuntza metodo gisa.

e.6) Ikasleek ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzea indarreko araudiari jarraikiz.

f) Denek aukera berdina edukiz hezia izateko eta babes soziala izateko eskubidea. Ikasle guztiek babes sozialerako, aukera berdintasunerako eta hezkuntza eremuan sartzeko eskubidea dute,

indarreko lege esparruaren barrenean. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

- f.1) Babes eta laguntza jasotzea desberdintasun, gabezia edo desabantaila pertsonalak, familiarrak, ekonomikoak, sozialak edo kulturalak konpentsatzeko, hezkuntza sisteman sartzea edo segitzea galarazten edo zailtzen duten premia berariazkoak dituztenei arreta berezia eskainiz.
- f.2) Familia ezbeharretan edo istripuetan babesa jasotzea. Eritasun luzea gertatzen denean, ikasleak eskubidea du ezinbestean eskolatu gabe egon beharreko aldiak bere ikasketen errendimenduan duen eragina gutxitzeko behar den laguntza jasotzeko. 2010eko irailaren 24a, ostirala 116. zenbakia - 12819. orrialdea.
- f.3) Terrorismoaren biktima diren ikasleei arreta berezia ematea, ikasketak egoki egiteko behar duten laguntza jaso dezaten.
- f.4) Genero indarkeriaren edo eskolako jazarpenaren biktima diren ikasleei arreta berezia ematea.
- f.5) Tratu txar fisiko edo psikologikoen edo axolagabekeriako edo babesgabetasuneko beste edozein egoeraren arrazoizko zantzurik dagoenean edo horrelakoak konfirmatzen direnean, babesa ematea.

g) Osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea. Ikasle guztiek beren osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea dute. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

- g.1) Ikastetxeetan ohitura osasungarriak sustatzea.
- g.2) Gorputz ariketa egiteko ohiturak sustatzea, osasunerako eta aisialdirako, hezkuntzaren ikuspegi batetik.
- g.3) Elikatzeko ohitura osasuntsuak sustatzea. Ikastetxeetako jantokietan eskaintzen diren menuetan hori bermatu beharko da.

h) Jasotzen den hezkuntzan, helburuen artean emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren berdintasuna sartzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- h.1) Behar diren gaitasunak garatzea eta behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak sartzea ikasleek autonomiaren eta independentzia pertsonalaren arloan, etxeko lanen arloan eta pertsonen zainketaren arloan dituzten edo izan ditzaketen behar eta erantzukizunak beren gain har ditzaten.
- h.2) Behar diren ezagutzak eta trebetasunak sartzea ikasleek ikas dezaten erabakitze esparruetan erantzunkidetasuna onartzen eta horrela parte hartzen.
- h.3) Emakumezkoak eta gizonezkoak berdintzat hartzea, emakumezkoek hainbat diziplinatan duten jakinduria berreskuratuz eta gizadiaren garapenerako egin duten ekarpen sozial eta historikoa aintzat hartuz.
- h.4) Hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta komunikatzeko estiloen aniztasuna errespetatzea, ikaslearen autoestimua eta nortasuna garatzeko berdintasun balioak transmititzeko giltza-baliabidea baita.
- h.5) Aukera akademikoak, pertsonalak eta profesionalak sexuari lotutako estereotipoetan oinarritutako baldintzarik gabe egiteko prestatzea.
- h.6) Ikaslearen heldutasun pertsonala, soziala eta morala sendotzea, bere harreman pertsonaletan eta afektibo-sexualetan erantzukizunez eta modu autonomoan jarduteko, dauden desberdintasunak aztertu eta kritikoki baloratzeko eta pertsonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko.

### **Aipatutako dekretuak biltzen dituen ikasleen betebeharrak honakoak dira:**

Hona hemen ikaslearen oinarrizko eginbeharrak:

- a) Ikastea, ikasleen oinarrizko eginbeharra baita. Eginbehar honek zera dakar:
  - a.1) Eskolako nahitaezko jarduera guztietara joatea eta aktiboki parte hartzea.
  - a.2) Ikastetxeko jardueren ordutegia errespetatzea eta garaiz iristea, jarduerak ikastetxearen instalazioen barrenean izan edo kanpoan.
  - a.3) Estudiatzea eta ahalegintzea, norberaren gaitasunen arabera garapenik handiena lortzeko.

- a.4) Atsedenaldiari, elikadurari eta higieneari dagokienez, ohitura egokiak izatea.
- b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea. Eginbehar honek zera dakar:
- b.1) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea, hala hezitzaile gisa ari direnean, nola ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak eta elkarbizitzaren arauak betetzeko kontrol lanetan ari direnean.
  - b.2) Irakasleek agintzen dituzten lanak egitea.
  - b.3) Ikastetxearen izaera eta hezkuntza proiektua errespetatzea.
- c) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea. Eginbehar honek zera dakar:
- c.1) Ikastetxeko elkarbizitzarako arauak eta antolaketa eta funtzionamendu arauak betetzea.
  - c.2) Parte hartzea eta eskola elkarteko kide guztiei modu aktiboan eta positiboan laguntzea hezkuntza jarduera guztiak errazago egin daitezten.
  - c.3) Ikasgelan eta ikastetxean ikasteko giro egokia sortzen eta mantentzen laguntzea irakasleei.
  - c.4) Bere ahalmenen arabera, sortzen diren gatazkei aurrea hartzen eta gatazkak bake bidez eta zuzen konpontzen parte hartzea.
  - c.5) Behar dutenei laguntza eskaintzea eta ematea.
  - c.6) Pertsona ahulenen alde eta eskolan jazarpena jasan dezaketenen alde aktiboki parte hartzea, biktima gaiak errespetatuz, defendatuz eta integratuz, eta ikastetxeak Elkarbizitza Planeko "antibullying" protokoloaren bidez ezartzen dituen neurrietan lagunduz.
  - c.7) Ikastetxeko eta, kasua bada, ikasgelako elkarbizitzarako arauak eta funtzionamendu arauak prestatzen parte hartzea, bere eskumen esparruan.
  - c.8) Ikastetxearekin batera aktiboki parte hartzea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeko jarduera eta bizitzan sar daitezten.
- d) Pertsonak errespetatzea. Eginbehar honek zera dakar:
- d.1) Besteenganako harremanetan errespetuz jokatzeko eta hori elkarbizitzarako oinarrizko arautzat hartzea.
  - d.2) Bere ikaskide guztiei ahalbidea eta erraztasunak ematea foru dekretu honetan ezarritako eskubide eta eginbehar guztiak erabil ditzaten, batez ere ikasteko eskubidea.
  - d.3) Jarrera baketsua izatea eta sustatzea, mota guztietako indarkeriak errefusatzeko.
  - d.4) Kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatzea, jende guztiaren eskubidea den aldetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Espainiako Konstituzioak babestu eta aitortua; orobat, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea errespetatzea, jaiolekua, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela kausa litezkeen bazterketa guztiak saihestuz.
  - d.5) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien ondasunak errespetatzea.
- e) Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higiena zainduta joatea. Eginbehar honek zera dakar:
- e.1) Erabiltzen diren jantziak ikastetxeen izaeraren arabera izatea, ikasteko tokiak baitira. Jantziak hezkuntzako lanak eta jarduerak egoki eta ongi egiteko modukoak izan behar dira eta ikaslea identifikatzeko trabarik ez dute jarriko.
  - e.2) Ikastetxearen aholkuak errespetatzea. Ikastetxeak ikaslearen jantzien erabilera arautzen ahal du. Araudi horrek gizonezkoen eta emakumezkoen tratu berdintasunaren irizpideak hartuko ditu aintzat eta kontuan hartuko ditu jantzien aniztasuna eta elkarbizitzan dituzten ondorioak, gogoeta kritikoa eginez eta integrazioaren ikuspegitik, eta aniztasuna errespetatuz.

e.3) Norberaren higieine eta garbiketarako ohitura egokiak izatea, osasun egoera egokian izateko eta eritasunen transmisioa galarazteko.

f) Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoa eta eskola garraioetakoa. Eginbehar honek zera dakar:

f.1) Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua, larrialdietako sistemak eta hezkuntza jardueran erabiltzen diren materialak errespetatu eta zaintzea.

f.2) Ingurumena errespetatzea, ikastetxean garbitasuna zainduz, ura eta energia egoki erabiliz, hondakinak bereiziz, etab.

f.3) Ikastetxearen inguruak errespetatzea, lorategiak, espaloiak, atariak, fatxadak, hormak eta abar garbi eta txukun mantenduz.

## IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREI BURUZKO ZEHAZTAPENAK DBHko IKASLEEK KONTUTAN HARTU BEHAR DITUZTEN ARAUAK

TALDE GUZTIEK AURREIKUSITAKO HELBURUAK LORTZEKO OINARRIZKO ARAU BATZUK BEHAR DITUZTE. GURE KASUAN, **INSTITUTUAREN HELBURU NAGUSIA HEZKUNTZA ESKUBIDEA GARATZEA DA.**

**Lehenik eta behin esan behar da ikasleek Institutuko leku guztietan gutxieneko orden, errespetu eta garbitasun arau orokorrak bete behar dituztela bai pertsonekin, baita institutuko materialarekin ere.**

1. Ikasleek duten **lehendabiziko betebeharra ikastea da**, norbera bere gaitasunen arabera. Ikasgelan irakasleak erabakitzen dituen lanak egin behar dira, irakasleak eskolak behar bezala emateko duen eskubidea eta lankideek behar bezala lan egin ahal izateko giroa egon dadila errespetatuz.
2. **Pertsonak errespetatu behar ditugu**, irakasleak, lankideak eta Institutuko langile guztiak.
3. **Gelak garbi eta txukun mantendu behar ditugu**, honek lan giro egokia lortzen laguntzen duelako. Ikasleek garbitu beharko dute, haiek modu desegokian aritzeagatik zikindu dutena.
4. Ikasgela uzten dugunean, **argiak itzaliko ditugu eta atea itxiko dugu**.
5. Goizeko azken saioaren bukaeran, edo gure ikasgelan eskola dugun azken saioaren bukaeran, **aulkiak mahai gainean utziko ditugu** garbitzaileen lana errazteko.
6. Ikasleen arropen gaiarekin lotuta, esan behar da, lan egiteko arropa egokiak eraman behar dituztela, institutu barruan ez da onartuko txapela edo txanoa jarrita izatea.
7. Motxilak eta poltsak modu eta leku egokian utziko dira. Zentzu berean, berokiak pertxeroetan utziko dira.
8. Bai ikastetxeko **materiala**, baita lagunena ere **errespetatuko dugu**. Kalteak gertatzen baldin badira, egileek horiek ordain ditzaten neurriak hartuko dira.
9. Paperak, poltsak eta abar **paperontzietan botako dira**. Hemen ere 3. puntuaren zehazten dena hartuko da kontutan.
10. Egin beharreko gela aldaketak modu egokian egingo dira, gainera taldeen lan giroa oztopatu gabe.

11. Ikasleak **puntual egongo dira** dagokien ikasgeletan. Irakaslea baino beranduago eta justifikaziorik gabe heltzen den ikasleari berandutze jarriko zaio. Hilabete berean bost atzerapen pilatzen dituen ikasleak atsedendaldia bat emango du Ikastetxerako lanean.
12. Atzerapena 10 minutukoa edo handiagoa baldin bada, irakasleak zirkunstantziak kontutan hartuz, Zuzendaritzan gertaeraren berri emango du. Edozein kasuan,ikaslea beti onartuko du klasean.
13. **Eskolen Klaseen artean ezin da pasabideetan egon.** Hurrengo irakaslea ikasgelaren barruan itxarongo da. Justifikaziorik gabe pasabidean ikusten diren ikasleei amonestazio bat jarriko zaie.
14. Jolastorduan ikasle guztiak patiora aterako dira. Ikasgelan, bakarrik gelditu ahal izango dira mediku arrazoia duten ikasleak (laguntzailerik gabe).
15. Ikasleek **komunak jolastorduan** erabiltzen ohitura hartu behar dute. Irizpide moduan, ikasleak ez dira eskoletan komunara joango. Gainera eskolen artean komunak itxita egongo dira eta eskoletan ikasle bati komunera joateko baimena ematen duen irakasleak horren nota hartu beharko du.
16. Ikasleak Institututik atera ahal izateko gurasoek bere bila etorri beharko dute .
17. Gurasoek bere seme-alaben ez etortzeak edo atzerapenak **72 orduko epean** idatziz justifikatu beharko dute .
18. Irakasle batek ikasle bat gelatik kanporatzen duenean derrigorrez gertaeraren parte bat jarriko du.
19. Programatutako ateraldi guztiak **hezkuntza eginkizunak dira eta ikasle guztiek joan beharko dute**. Beraz, ez etortzeak justifikatu beharko dira.
20. Zuzendaritzak, tutoreekin eta inplikaturako irakasleekin hitz egin ondoren, erabaki ahal izango du ikasle batek, ikasturtean zehar antola daitezkeen txango edo eskolatik kanpoko jardueretan, parte ez hartzea.
21. Legeak agintzen duenari jarraituz, ikasleek ezin dute ikastetxe osoan **erre**.
22. Eskoletan ezin da ez txiklerik edo beste motako gozokirik jan. Ikasleek ikasgelan ur botilak izan ditzateke, honako baldintzak kontutan hartuz:
  - Mahai gainean ez izatea.
  - Irakasleen azalpen bitartean ez edatea.
  - Haiekin ez jolastea.
23. Ikasleek ez dute ikastetxera **objektu arriskutsu edo desagokiak** ekarri behar. Atal honetan sartzen dira sakelako telefonoak edo beste motako gailu elektronikoak (kalkulagailua salbu). Irakasleek eskolak aurrera eramateko desagokitizat jotzen dituzten objektuak bilduko dituzte eta Zuzendaritzara eramango dituzte. Familiak horiek lehenengo aldiz jasotzeko, hurrengo egunetik aurrera etorri beharko dira. Ikasle bati mota bereko objektua bigarren aldiz hartuko balitzaio, ikasturtea bukatu arte ez litzaioke itzuliko.
24. Irakasle guztiek **esandakoari kasu egingo diogu**, klase ematen digun ala ez kontutan hartu gabe.
25. Arazoa bat izatekotan honako prozedura jarraitu behar duzue. Lehendabizi hitz egin beharko



duzue arazoa izan duzuen irakaslearekin zuzenean edo ordezkariaren bitartez. Berarekin gauzak argitu ez badituzue, hurrengo urrats moduan zuen tutorearekin hitz egingo duzu, eta jarraian Ikasketa burua eta bukatzeko zuzendariarekin.

26. Institutuan **gurasoentzat banatzen den informazioa etxean eman behar da.**

## **GURASOAK**

Aitak, amak edo legezko tutoreen eskubideak:

Aitek, amek edo legezko ordezkariak bere seme-alaben heziketari dagokionez, indarrean dagoen legedian aitortutako eskubideak dituzte.

Hezkuntza Departamentuak aurreko puntuan adierazitako eskubideak erabili ahal izatea bermatuko du. Bereziki bermatuko da gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alaben ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzeko duten eskubidea, deusetan galarazi gabe ikastetxeko zuzendaritzari eta irakasleei esleitutako eskumenak. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- a) Seme-alaben ikaskuntza prozesuaren aurrerapenei eta haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari buruzko informazioa jasotzea. Hori dela eta, ikastetxeek prozesu horiei buruz behar den informazio guztia emanen diete gurasoei edo legezko ordezkariari.
- b) Ikasturtearen hasieratik helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluatu, kalifikatu eta aurrera egiteko irizpideak ezagutzea eta egiten dituzten erreklamazioei buruzko informazioa eta argibideak jasotzea.
- c) Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren neurrietatik beraiei dagozkienak ezagutzea, batez ere eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko baliabide gisa erabiltzekoa, eta, halakorik bada, parte hartzea proposatzen diren neurrien eta erabakien diseinuan, eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztea, indarreko arudiari jarraikiz.
- d) Beren seme-alaben orientazio akademikoaren edo profesionalaren gaineko erabakiak hartzen direnean, entzuna izatea, aurreko puntuetan adierazitako parte-hartzea deusetan galarazi gabe.
- e) Ikastetxearen antolaketan, gobernuan eta funtzionamenduaren balorazioan parte hartzea, Eskola Kontseiluan edo ikastetxeko gurasoen elkarteetan parte hartuz.

Aiten, amen edo legezko ordezkarien betebeharrak:

1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan ezarritako eginbeharrak dituzte.
2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza arloko administrazioak eta kasuan kasuko ikastetxeak aurreko idatz-zatian adierazitako erantzukizunak betetzen direla begiratuko dute, eta bereziki, honako hauek betetzen direla begiratuko dute:
  - a) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte-hartze aktiboa izatea, eta, hala badagokio, portaera batzuk zuzendu behar badira, ikastetxearekin lankidetzan aritzea.
  - b) Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina izatea eta erraztea.
  - c) Beren seme-alaben asistentzia, aprobetxamendua eta parte-hartzea bermatzen dituzten neurriak, baliabide materialak eta baldintzak hartzea.
  - d) Beren seme-alabak ikastetxera eraman eta hartzeko orduan, puntualak izatea.
  - e) Beren seme-alaben ez etortzeak justifikatzea, institutuak aukeratutako modua jarraituz eta eperik laburrenean.
  - f) Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.

- g) Eskola Komunitateko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.
- h) Ikastetxearen berezko izaera ezagutzeko eta ikastetxearen hezkuntza proiektua errespetatzea eta seme-alabei errespetatzea.
- i) Ikastetxeko Bizikidetzaren Planak bizikidetzarekin lotutako gaietan familiek izango duten parte hartzea arautuko du.

Gurasoen edo legezko ordezkarien ezbetetze larri edo errepikatuak gertatzen badira lehenago ezarritako erantzukizunetan, hezkuntza komunitateko kide batekin errespetu falta larria edo ikastetxeko hezkuntza komunitateko kide edo ikasle baten integritate fisiko edo moralarentzat portaera arriskutsuak azaltzen badituzte, ikastetxeko zuzendariak murrizten ahalko die ikastetxeko instalazioetan sartzea, gehienez hamabost eskola egunetarako, edo hezkuntza komunitateko kide batekiko komunikazio pertsonala murriztuko die. Zentzu honetan irakasleek familia batzuekin biltzeko beste irakasle bat edo zuzendaritzako kide bat bileran berarekin egon dadila eskatu ahal izango du. Irakasle guztiek eskubide osoa dute bilera bertan bera uzteko familia batekin, berarekin errespetu falta erakusten ari direla edo fisiko zein emozionalki erasotuta izaten ari dela uste baldin badu. Zuzendaritzan emango du honen berri. Zuzendaritzakoek famili horri eska liezaioke Institututik atera daitezten. Egoera ikusita, familia batekin berriro biltzeko bilera grabatzea ezinbesteko baldintza izango dela jakinarazi ahalko zaio familia horri.

Ikastetxean sartzea murrizteko neurria aplikatu baino lehen, ikastetxeak gurasoei edo legezko ordezkariari eskatu beharko die izenda dezatela, hala behar denean, nor izanen den ikastetxera joateko arduraduna, murrizketak dirauen bitartean, bizikidetzarako erregelamenduan finkatuta ez badago.

Harreman pertsonalen murrizpenen kasuan familiari jakinarazi behar zaion informazio guztia posta zertifikatutaren bitartez egingo da.

## **5. Bizikidetzaren batzordea**

### **5.1. Osaera**

Bizikidetzaren Batzordea, ikastetxeko zuzendariak izendatuta, honela osatuko da:

- Zuzendaria edo bizikidetzaren arduraduna.
- Ikasketa Burua.
- Ikastetxeko beste irakasle bat, bizikidetzaren prestakuntza duena.
- Beste irakasle bat.
- Orientatzailea.
- Eskola kontseilu kide den aita edo ama bat.

### **5.2. Komizioaren funtzioak**

#### **a) Bizikidetzaren planari lotuak.**

- a.1) Bizikidetzaren plana diseinatu eta bere urteko zehaztapenak, urteko programazio orokorrean sartuko direnak, denon artean prestatzeko prozesuaz arduratzea.
- a.2) Bizikidetzaren plana eta bere urteko zehaztapenak prestatzeko proposamenak jaso eta sortzea.
- a.3) Bizikidetzaren egoera ezagutzeko aldi behineko azterlanak programatu, bultzatu eta burutzeko, baita bizikidetzaren planaren urteko ebaluazioa ere, eta behar diren hobekuntzak proposatzea.
- a.4) Bizikidetzaren planaren aplikazioaren berri ematea hezkuntza komunitateari.
- a.5) Urteko zehaztapenaren memoria prestatzea.

- b) Bizikidetzarako erregelamenduari lotuak.
  - b.1) Bizikidetzarako erregelamendua berrikusten laguntzea.
  - b.2) Bizikidetzarako erregelamendua ikastetxean aplikatzeko jarduketei buruzko informazioa bilatu eta iradokizunak egitea, bidezkoa denean.
- c) Prestakuntzari eta aholkularitzari lotuak.
  - c.1) Hezkuntza komunitateari aholku ematea bizikidetzaren arloan, eta prestakuntza jarduerak bultzatzea, bai irakasleentzat bai hezkuntza komunitatearen gainontzekoentzat, gai horretan.
  - c.2) Bizikidetzarako hezkuntza arlo eta irakasgaien curriculumean sar dadin proposatzea.
  - c.3) Zuzendaritzari aholku ematea erabakiak hartzeko orduan, bizikidetzaren kontrako jokabideen edo harentzat oso kaltegarriak direnen aurrean hezkuntza neurriak hartzeko.
- d) Bitartekotzari lotuak.
  - d.1) Bitartekotza taldeak sortzea eta haien funtzionamenduaz arduratzea.
  - d.2) Bitartekotza formaleko prozesuak antolatzea, foru agindu honen IV. kapituluan ezarritakoaren arabera.

### 5.3. Batzordearen funtzionamendua

Ikasturte hasieran, eta batzordea osatu ondoren, batzordekideek beraiek erabakiko dute batzordearen funtzionamendua, lanen banaketa, egin beharreko lanak, eta abar.

Edozein kasuan, Klaustroan esango da nortzuk diren batzordekideak, bakoitzaren erantzukizunak eta funtzionamendurako hartutako irizpideak.

## 6. Ikastetxeko bizikidetzaren arduraduna

1. Ikastetxeko bizikidetzaren arduraduna bizikidetzari dagokion guztia dinamizatzen ariko da, bai aurreneurrien aldetik bai hezkuntza aldetik.
2. Ikastetxeko zuzendaritzak arlo horretan prestakuntza duen pertsona bat izendatuko du bizikidetzaren arduradun. Orobat, ikastetxe publikoko zuzendariak orduen banaketa hartzen ahalko du kontuan, ikastetxean dauden aukerak ikusita.
3. Hauek dira ikastetxeko bizikidetzaren arduradunaren eginkizunak:
  - Bizikidetzaren batzordea eta bere ekintza eta proiektuak dinamizatzea.
  - Bizikidetzaren plana prestatzen, ezartzen, ebaluatzen eta eguneratzen parte hartzea, baita hezkuntza komunitatea inplikatze mekanismoetan ere, ezinbestekoa baita hura garatzeko, abiarazteko, ebaluatze eta urtean zehar gauzatzeko.
  - Ondokoak antolatzea bizikidetzaren planaren esparruan: ikasleen prestakuntza eta parte hartze aktiboa, prebentzioa eta estrategia zehatzak ezartzea gatazkak konpontzeko, eta hezkuntza komunitateko agenteen inplikazioa.
  - Irakasleen arlo honetako prestakuntza bultzatzea, eta bizikidetzaren arduradun gisa duen prestakuntza eguneratzea; orobat, ikastetxeko beste talde batzuen bizikidetzaren arloko prestakuntzaz arduratzea.
  - Zuzendariari laguntza eta aholkuak ematea, bizikidetzarako erregelamendua aplikatzeko.
  - Ondoko dokumentuez arduratzea: ikastetxeko bizikidetzaren plana; haren urteko zehaztapenak, non arduradunaren lanerako plana egon behar baita, eta urteko memoria.

# BIZIKIDETZA

## ARAUDIA

### 1. Gatazka motak

- Eskolak oztopatzea.
- Pertsonen errespetu falta (irakasleak, ikasleak eta irakasle ez diren langileak) bere eskubide eta betebeharretan, eskola eremuan eta honetatik kanpo gertatuak ikastetxeko giroan eragina baldin badute.
- Eskola eremuan eta eskola ordutegiaren barruan diziiplina falta.
- Eskola eremutik edo ordutegitik kanpora gertatzen badira ere, ikasleen eginbeharren eta eskubideen urraketaekin zuzeneko harremana baldin badute, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera.
- Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak egin bitarte gertatzen badira edo eta ikastetxeko zerbitzu osagarrietan (eskola garraioa...).
- Eskola kideen arteko erasoak edo/eta tratu txarrak.
- Sexu arrazoiengatik erasoak edo diskriminazioa.
- Objektu desegokiak.
- Pertsonen arteko gatazkak.
- Eskola ez etortzeak.
- "Eskola eragozlea".
- Bandalismoa.
- Beste ikasleak bultzatzea elkarbizitzaren aurkako portaerak egitera.

### 2. Prebentzio neurriak

Aplika daitezkeen prebentzio neurriak hauek dira:

- Ikastetxean elkarbizitzarako giro egokia sustatzea, eguneroko eginkizunetan integratutako berriarazo jarduketak batzuen bidez.
- Curriculum arloetako programazioetan behar diren edukiak eta trebetasunak garatzea, gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna eskuratzen direla bermatzeko, hala nola balio demokratikoak eta pertsona guztien berdintasuna sustatzeko.
- Gatazkak elkarbizitzaren bidez eta bake bidez konpontzeko ikaskuntza planifikatzea, ikasleak ezagutzaren bidez prestatuz, hala nola heziketa emozionala, balioetan oinarritutako hezkuntza eta trebetasun sozialak landuz.
- Elkarbizitzarako arauen kontrako portaerei aurrea hartzea, irakasleak, Elkarbizitza Batzordeko kideak eta Eskola Kontseiluko kideak trebatuz eta arlo horretan dituzten eginkizunak eta jarduketak zehaztuz.
- Ikastetxearen, familien eta prebentzio eta hezkuntza neurriak hartzeko eskumena duten erakunde publikoen arteko koordinazioa, batez ere ikasleen egoera familiarra, pertsonala edo bestelako bat dela kausa, elkarbizitzarako arauen kontrako jokabideak sor badaitezke.
- Tutoretza plana diseinatzea, bertan elkarbizitzari, trebetasun sozio- emozionalei eta balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko edukiak eta helburuak bilduz eta, orohar, gizabanakoen arteko eta taldeko harremanak indarkeriari aurrea hartzera eta gatazkak bake bidez konpontzera bideratzen dituzten ikaskizunak sartuz.
- Bizikidetzaren konpromisoak.
- Bertan arteko bitartekotza.

### 3. Bizikidetzak konpromisoak

Ikasle batek elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera izan ondoren Ikasketa Buruak berarekin izango duen elkarbizitzan benetako damua ikusten baldin bada neurri hau proposatu ahalko zaio. Familiak neurri honekin bat etorri beharko du eta idatziz baieztatuko du bere onspena. Konpromisoaren edukiak gertatutakoaren azalpen zehatza izango du. Honela erabakitzen baldin bada, lekukoa edo biktima izan zen irakasleari edo ikasleari eskatuko zaie bertsioa baieztatu dezaten. Jarraian ikasleak berak azaldu beharko du nola uste duen konpromisoa dezakeela sortutako mina eta horren iraupena. Dena sinatu beharko du. Prozesu oso aztertzerakoan, Orientatzaileak eta Ikasketa Buruak baloratuko dute hartutako konpromiso guztien betetze maila eta ikaslearen portaeran eta jarreran ikusitako hobekuntza.

**Ikasle berberak mota bereko portaera berriro izango balu, ez litzaioke hasieran hezkuntza neurri hau beste behin eskainiko.**

### 4. Berdinen arteko bitartekaritza

Eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko metodo bat da, non pertsona batek auzitan dauden bi pertsonaren edo gehiagoren artean parte hartzen duen, alderdi guztientzat egokia den akordio bat aurkitzen laguntzeko. Eskolako bitartekaritza, ahal den guztietan, eskola elkarrekin osatzen duten pertsonen arteko gatazken kudeaketan erabiliko da, hezkuntzako, prebentziorako eta gatazkak konpontzeko estrategia gisa.

Bitartekaritza neurri eskusiboa izan daiteke, edo osagarria, aldi berean, lehenago edo geroago hartzen diren beste hezkuntza neurri batzuekin.

Bitartekariak zehaztuko den prestakuntza berariazkoa izan behar du eta inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunaz arituko da.

Beste ikasle edo ikasle talde batekin arazoak izateagatik, irakasle edo ez irakasle den ikastetxeko langile bat, beste ikasle edo familia batek ikasleen artean gatazken berri emateagatik (zuzendaritzan, tutorea, orientatzailea, ikasle bitartekari edo irakasleei), ikasle bati hutsegite larri zuzena jartzen zaionean, parekoen arteko bitartekotza prozesua ireki ahal izango da:

- Bi aldeek eskatuta.
- Bitartekariaren taldeko irakasle eta ikasleek egokitzat jotzen baldin badute eta inplikaturik dagoen irakaslea ados baldin badago.
- Tutoreak honela eskatuta, prozesu hau zigor bat jartzea baino egokiagoa dela uste duelako.

Ez da prozesu hau erabiliko:

- 47/2010 Foru Dekretuaren 17. Artikuluan zehazten diren elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaera baten aurrean eta aipatutako Dekretuaren 18.2. artikuluan biltzen diren astungarriren bat ematen baldin bada.
- Ikasle berberarekin eta ikasturte berean prozesu hau erabili baldin bada eta emaitza egokirik eman ez badu.
- Inplikaturikoen arteko desberdintasunak gaindiezinak direnean edo hori aholkatzen ez dutelako.
- Bidezkoa ez den kasuetan, arazoa epaile baten eskutik dagoelako.

### PROZESUA

- Bitartekariaren taldeak (irakasle eta ikasle osatuta) gertatutako gatazkaren berri izan behar du.
- Ikasleen familiei jakinaraziko zaie lan hori egiten ari dela, horren arrazoiak eta prozesu honen funtzionamendua.
- Bitartekariaren taldekideen artean, arazo bakoitza landu behar duten pertsonak aukeratuko dira.

- Pertsona horiek kasua landuko dute, aldeekin hitz eginez, beste jokaera desberdinak, konpromiso nondik norakoak eta abar proposatuz. Gatazkari irtenbidea emateko proposamen zehatza egingo dute, jarraipena eta ebaluazioa ere zehaztuz.
- Interbentzioa egin duten pertsonak egindako proposamenari oniritzia emango dio bitartekarien taldeak.
- Interbentzioaren bukaeran (onartutako konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa barne), Barne Araudiak aplikatzeko edo ez, jarritako hutsegitea kenduko denetz erabakiko da. Egindako lana leungarri hartzea edo besterik gabe, Barne araudiak zuzen aplikatzea ere posible da.
- Ikasketa Buruari adostutakoaren berri emango zaio, ikasle, tutore eta familiari beharrezkoa den informazioa helarazi diezaien.

Elkarbizitza Komisioari eta tutoreari jakinaraziko zaie hartutako erabakia, haiek ikasleari berari eta honen familiari informazioa eskura jar ditzaten.

## **5. Komunikazio eta Informazio Teknologikoen erabilpenerako protokoloa**

Ikasleek ez dute institutura inolako tresna elektronikorik ekarri behar, kalkulagailua izan ezik. Beharrezkoa denean Institutuak bide erraztuko die ikasleei bere familiekin telefonoz hitz egin dezaten. Ikastetxean ezin ditugu ikasleen gauzak arakatu, baina tresnaren bat ikusi edo entzuten baldin bada, irakasleak berak tresna hori hartuko du eta zuzendaritzan emango du. Ikaslearen familiak objektu hori jasotzera, hurrengo egunetik aurrera institutura etorri beharko du.

Ikasturte hasieran zuzendaritzak familia guztiei eskatuko die baimen orokor bat beren seme alabek antolatuko diren jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoetan parte har dezaten. Zentzu berean baimena eskatuko zaie eskola jardueretan beren seme alabak agertzen diren argazkiak egin ahal izateko. Argazki horiek institutu barruan baino ez dira erabiliko.

Institututik bidaliko diren komunikazio guztiak emailez bidaliko dira. Zerbitzu hau ez duten familien kasuan ikasleei eskura emango zaie.

Bukatzeko, ikasturte hasieran EDUCAn sartzeko datuak ez dituzten familiei banatuko zaizkie aipatutako datu horiek.

## **6. Neurriak aplikatzeko irizpideak**

1. Irakasle guztiek, beren agintea erabiltzen dutenean, ikasteko behar den eskolako giro ona erraztu behar dute, eta horregatik, ikastetxeak antolatutako hezkuntza jarduerak egiten diren bitartean, elkarbizitzaren aurkakoak diren ikasleen portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu.

2. Zuzendu beharreko portaeretan aplikatu beharreko neurri guztiak egintzen erantzulea den ikaslearentzat hezigarriak izanen dira. Neurri horiek, gainera, ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute, eta erreferentzia elkarbizitza hobetzea izanen da.

3. Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, aita, ama edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko alegazioak aurkezteko, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

4. Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira:

- Neurriek ikasleen hezkuntza prozesuak aurrera segitzea bermatu beharko dute, haien prestakuntza akademikoa galarazi gabe.
- Ez da osotasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren kontrako neurririk aplikatuko.
- Aplikatzen diren neurriak ikaslearen portaerarekin proportzionalak izanen dira.
- Neurriak aplikatzean ikaslearen adina eta egoera pertsonalak, familiarak eta sozialak hartu beharko dira kontuan. Horretarako, irakasleek inguruabar horiei buruz behar duten informazioa biltzen ahalko dute eta, hala badagokio, familiari edo erakunde publiko eskudunei aholkatzen ahalko diete behar diren neurriak har ditzaten.

- Aplikatzen den neurriarekin batera kalteen konponketa ere ezarriko da, batez ere kalte pertsonalak izan direnean.
  - Saiatuko da hartuko den hezkuntza neurria azkar erabakitzen, bere hezkuntza eragina indartzeko.
5. Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz eta/edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere.
6. Neurri jakin bat aplikatzea egokia ote den erabakitzeko, irakasle arduradunek eta zuzendaritzak ondoko hauengana jotzen ahalko dute aholku eske: ikastetxeko orientatzailea, ikastetxeko Elkarbizitzaren Batzordea, Hezkuntza Departamentuko Elkarbizitzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikuskatzailetza eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
7. Neurrien izaera hezigarria indartzeko eta antzeko portaerak berriz agertzeari aurrea hartzeko, neurriak aplikatu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak hala erabakitzen badu, ikaslearen, zuzendaritzaren eta zuzendaritzak berak egokitzen dituen pertsonen arteko elkarriketak egiten ahalko dira.

Eragindako kalteak konpontzea ikastetxeko elkarbizitzaren oinarrizko printzipioetako bat izanen da eta ikastetxe bakoitzeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen den bezala eginen da, foru dekretu honen seigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena galarazi gabe.

### 6.1. Elkarbizitzaren aurkako portaerak eta hezkuntza neurriak

1. Ikasteko eginbeharra ez betetzea, edo bere ikaskideek ikasteko duten eginbeharraz eta eskubideaz baliatzea eragozten duen beste edozein portaera, ez larria, hartzea eskolak bitartean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiari jakinaraztea agendan ohar bat idatziz edo telefonoz deituz.</li> <li>- Atsedernaldia erabiltzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>- Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslerekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
2. Lau puntualitate falta ez justifikatuak lehen orduetan.	- 5. aldian ezin izango da klasera joan 1. saioan eta justifikatu gabeko faltatzen hartuko dugu. Azterketarik izanez gero egiteko aukera galduko luke.
3. Lau amonestazio pilatzea.	- Atsedernaldia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.
5. Klasean egoteko orduan klasetik kanpo egotea. (lehenengo aldia)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiari jakinarazi.</li> <li>- Atsedernaldia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> </ul>
6. Eskolara behin eta berriz agertzea behar den materiala eraman gabe.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiari jakinarazi.</li> <li>- Atsedernaldia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> </ul>
7. Pasabideetatik joan ikasgeletan daudenak molestatzeko moduan.	- Atsedernaldia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.
8. Azterketetan, probetan edo ariketan kopia egitea edo beste ikasle batzuei kopia ematea.	- Proban edo ariketan kalifikazio negatiboa "0" jartzea.
9. Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak ez larriak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraina, errespetu falta edo gertatu zen leku eta testuinguru berean dagokion pertsonari barkamena eskatzea.</li> <li>- Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslerekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen</li> </ul>

	<p>prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
10. Irakaslearen agintearen aurkako errespetu faltak, ez larria, edo/eta ikastetxeko langileei desobeditzea, beren eginkizunetan ari direla.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraina, errespetu falta edo gertatu zen leku eta testuinguru berean dagokion pertsonari barkamena eskatzea.</li> <li>- Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslerekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko.</li> <li>- Ikaslea beste talde batera aldatzea aldi baterako.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
11. Eskola komunitatekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideak desegoki eta errespetu gabe tratatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraina, errespetu falta edo gertatu zen leku eta testuinguru berean dagokion pertsonari barkamena eskatzea.</li> <li>- Atsedendia erabiltzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
12. Taldekako absentzietan parte hartzea, zuzendaritzak baimentzen ez baditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiari jakinaraztea.</li> <li>- Ez etortze ez justifikatu bezala hartzea.</li> </ul> <p><b>Honetaz gain parte bat bideratuko da.</b></p>
13. Ikastetxeko langileei gezurrak esatea, informazio faltsua ematea edo zerbait jakin arren ez esatea, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten ez badio.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraina, errespetu falta edo gertatu zen leku eta testuinguru berean dagokion pertsonari barkamena eskatzea.</li> <li>- Atsedendia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
14. Debekatuta dauden ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramatea, salbu eta zuzendaritzaren baimena badu (eskuko telefonoa, labanak, MP3, MP4, txanoak, eta abar).	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipoak, materialak edo gailuak jaso eta ikastetxean izan ikaslearen familia hurrengo egunetik aurrera haien bila etorri arte.</li> </ul>
15. Norberaren jantziei, higienerari eta garbiketari behin eta berriz arreta galtzea, nahita.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gurasoak deitu instituturara berehala etor daitezen seme-alaba hartzera eta arazoa konpondu bezain laster berriro instituturara ekar dezaten.</li> </ul>
16. Ikastetxeko guneak, materiala eta ekipamendua erabiltzea baimenik gabe, edo hezkuntzakoak ez diren helburuetarako edo baimendutakoak ez diren beste batzuetarako	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atsedendia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
17. Ikastetxe komunitatearen kide baten ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, kaltea arina denean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atsedendia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>- Ikastetxe edo ikasleri itzuli hondatutako materiala edo ordaindu bere balioa ekonomikoa.</li> </ul>
18. Ikastetxeko instalazioen, ekipamenduen, materialen edo inguruen garbiketa galaraztea, hala nola eskolako garraiorako autobusena edo ikastetxearekin bisitatzen diren lekuena. Pintaketak egitea bereziki tratatuko dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atsedendia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>
19. Ikastetxearen barrenean, eskolako garraibideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bitartean tabakoa erretzea edo edari alkoholduak edatea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiari jakinaraztea.</li> <li>- Atsedendia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> </ul>



20. Ikastetxeak aitei, amei edo legezko ordezkariari bidaltzen dien informazioa ez ematea edo ez jakinaraztea haiei.	- Familiari jakinaraztea.
21. Eskola jardueraren ohiko garapena nahasten duen beste edozein jokabide oker, ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaeratzat hartzen ez bada.	- Familiari jakinaraztea. - Iraina, errespetu falta edo edo gertatu zen leku eta testuinguru berean dagokion pertsonari barkamena eskatzea. - Atsedendia erabiltzea edo 14,30etan geratzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako. - Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslerekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko. - Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.

## 6.2. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak eta hezkuntza neurriak

1. Gelatik irakaslearen baimenik gabe ateratzea.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko. - Ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea.
2. Institututik alde egin familia etorri gabe edo zuzendaritzaren baimenik gabe.	- Lehenengo aldian ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea. - Hurrengoetan ikastetxera joateko eskubidea bi egunetan etetea, ikaslea gelatik kanporatu duten irakasleak bat baino gehiago baldin badira. Honela ez bada egun batekoa izango da.
3. Lau aldiz ikasgelatik kanporatua izatea bere ikaskideek ikasteko duten eginbeharra eta eskubidea oztopatu eskolak bitartean edo/eta irakasleek eskolak lan giro egokian emateko duten eskubidea oztopatzeagatik.	- Lehenengo aldian ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea. - Egoera berriro errepikatuko balitz ikastetxera joateko eskubidea bi egunerako etetea, baldin eta ikaslea bi irakasgai edo/eta irakasle desberdinek kanporatua izan bada.
4. Ikasgelatik kanpo egotea, ikasgela barruan egoteko momentuan eta jarrera hau errepikatzen bada.	- Ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea.
5. Irakasleen edo haren agintearen aurkako edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umilazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofoboa badute edo pertsonen sinesmen edo konbikzio moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
6. Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
7. Institutura etortzea, hona etortzeko eskubidea etena baldin badago.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea.
8. Ikasgelatik ez ateratzea, irakasleak ikasgelatik ateratzeko agintzen dionean.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea.

9. Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan edozein portaera desegokia: berandu heltzea, obedientzia falta...	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
11. Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barreneko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea baimentzen ez diren erabileretarako.	- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
12. Aurreko atalean adierazitakoak baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez hedatzea.	- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
13. Ikastetxeko instalazioak, materialak edo dokumentuak, eskolako garraioak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen gauzak ere, kaltea larria denean.	- Eskola ordutegitik kanpo, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro har, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
14. Asmo txarrez eginak izateagatik, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
15. Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. - Eskola ordutegitik kanpo, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta egindako kaltea ordaindu.
16. Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. Bereziki larrizat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
17. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera baten ikastetxeko langileei gezurrak esatea, informazio faltsua ematea nahita edo kideren bati kalte larria eragiten dion informazioaren jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
18. Obedientzia ukatzeko portaerak. Hemen sartzen da irakasleari edo ikastetxeko langileei ez ematea berak eskatutako mugikorra. Baita klasetik ez ateratzea horrela eskatu badio irakasleak.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko. - Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.
19. Giza eskubideen adierazpenean jasota dauden eskubide eta askatasunen kontrako kartelak jarri edo pintadak egitea.	- Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, orobar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan,

	<p>dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</li> <li>- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.</li> </ul>
20. Drogak kontsumitzea edo banatzea, tabakoa erretzea edo edari alkoholdunak edatea behin eta berriz ikastetxeko guneetan, eskolako garraibideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan, edo portaera horiek hartzera bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</li> <li>- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.</li> </ul>
21. Emergentsia eta ziurtasun neurrien erabilpen desegokia (estintoreak, alarmak, eta abar.).	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro ar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</li> <li>- Ikastetxera joateko eskubidea egun baterako etetea.</li> </ul>
22. Lau Elkarbizitzaren aurkako portaerak pilatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola ordutegitik kanpo, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro ar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</li> <li>- Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko.</li> <li>- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.</li> </ul>
23. Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro ar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</li> <li>- Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko.</li> <li>- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.</li> </ul>
24. Dekretu Foral honen 9.1 artikulua aipatzen dituen bizikidetzak konpromisoak ez betetzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro ar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</li> <li>- Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko.</li> <li>- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.</li> </ul>
25. Beste ikasleak bultzatzea elkarbizitza bereziki nahasten duten portaerak egitera.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, oro ar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.</li> <li>- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.</li> <li>- Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko.</li> <li>- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez.</li> </ul>

26. 12 falta ez justifikatuak bete ondoren aperzibimendua irekiko zaio.	- Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako. - Ikaslea 3. edo 4. mailakoa bada, aste berdera edo ikasketa bidaira joateko eskubidea galduko dute.
-------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

### 6.2.1. Elkarbizitza bereziki nahasten duten portaera larriak zuzentzeko printzipio orokorrak aplikatzeko irizpideak

- Aplikatzen diren Hezkuntza neurri guztiak aurretik familiari jakinaraziko dira.
- Irizpide bezala, beti eta lehengo aldian erabakiko diren hezkuntza neurriak izango dira ikastetxean bertan egitekoak, bai eskola ordutegian baita horretatik kanpo ere.
- Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Etenaldia bitartean, ikasleak ezartzen diren prestakuntza jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua eten ez dadin. Horretarako, lan plan bat diseinatuko da. Irakasleek plan horretako jardueren segimendua eginen dute eta irakasgaien azken ebaluazioan kontuan hartuko dituzte. Era berean, ikasleak etenaldi horretan programaturik dauden ebaluazio proba objektiboak egiten ahalko ditu.
- Gainera, ikastetxea jakitun bada, hezkuntza neurria aplikatzearen ondorioz, adingabe bat arrisku egoera berezian edo babesik gabe gelditzeko aukera dagoela, zuzendaritzaren bidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emanen die bere ardurapean komunitaterako lanak egin ditzan.
- Ikastetxearen aldetik ahaleginak egin arren, justifikaziorik gabe ez etortzeak errepikatzen baldin badira eta egoera hori arautzen duen protokoloari jarraituz, egoera hori astungarria izango da hezkuntza neurri bat erabakitzeko orduan.
- Ohiz kanpoko kasuetan, ikaslearen portaerak asaldura handia eragin baldin badio eskola elkarteari, ikastetxeko zuzendariak, Eskola Kontseiluak ontzat eman ondoren, ikastetxe aldaketa eskatuko dio Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari. Ahal bada, ikaslea eskolaturik dagoen ikastetxe sare eta hizkuntza modalitate bereko beste ikastetxe batera eramanen da.

### 6.2.2. Kautelazko neurriak

Zuzendariak, behin betiko hezkuntza neurriak hartu bitartean, aplikatu ahalko ditu kautelazko neurriak, halakorik bada, prozedura bukatu arte mantentzen ahalko dira.

- Ikaslea taldez aldatzea aldi baterako.
- Eskola batzuetara edo ikastetxera joateko eskubidea etetea aldi baterako.
- Eskolaz kanpoko jardueretara edo jarduera osagarrietara joateko eskubidea etetea.
- Ikastetxeko zerbitzu osagarrien erabilera etetea.

### Kautelazko neurrien iraupena

Kautelazko neurrien iraupenak ezin izango du gainditu har daitekeen hezkuntza neurriaren luzera eta bestea zenbatzeko garaian hartuko da kontutan.

### 6.3. Aringarriak eta astungarriak

Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek **aringarritzat** har daitezke:

- a) Portaera desegokia berez onartzea eta, hala badagokio, kaltea konpontzea.
- b) Nahita egina ez izatea.
- c) Barkamena eskatzea.
- d) Eragindako kaltea konpentsatzeko zerbait eskaintzea.
- e) Lehenagotik hezkuntza neurriak aplikatu ez izana.

- f) Arau-hausleak bitartekaritza prozesuetan parte hartzeko borondatea izatea, horrelakoetarako aukera baldin badago.

Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek **astungarritzat** har daitezke:

- a) Prestidigitazioa.
- b) Ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan berreslea izatea ikasturte berean.
- c) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei kalte egiten dieten portaerak.
- d) Ikaskide gazteagoei edo bereziki ahulak diren ikaskideei kalte egiten dieten portaerak.
- e) Jaiolekuagatik, sexuagatik, arrazagatik, sinesmen ideologiko edo erlijiosoengatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik bereizkeria dakarten ekintzak.
- f) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen eskubideak urratzen dituzten jarduketak taldeka egitera bultzatzea edo animatzea.
- g) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den edozein jarduketaren publizitatea egitea.
- h) Ikastetxeari edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei eragindako kalteak bereziki handiak izatea.
- i) Zuzendu beharreko edozein portaera grabatzea eta/edo hedatzea.

#### **6.4. Familiako bizikidetzak konpromisoak**

Ikastetxeek konpromisoak proposatzen ahalko dizkiete jazarpen portaerak izateagatik hezkuntza neurriak aplikatu zaizkien ikasleen familiei, modu horretan ikastetxea eta familia batera aritu daitezkeen portaera horiek zuzentzeko.

Familiak uko egiten badiote konpromiso horiek sinatzeari, agintaritza eskudunei horren berri emanen zaie baldin eta legeek adingabeak zaintzeko ezartzen dituzten betebeharrak betetzen ez badira, edo ez behar bezala, eta adingabeek beharrezko laguntza ez badute.

#### **7. Hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura**

Elkarbizitza araudi honetan biltzen diren prozedurak eta tresnak ez dira irakasleek institutuan gerta daitezkeen portaera desegokiak bideratzeko erabiliko duten lehenengo bidea. Edozein kasuan, aurreko esaldian esandakoa portaeraren larritasunaren arabera izango da.

Beraz, irakasleak, beren eskoletan edo ikastetxean orokorrean gerta daitezkeen portaera desegokiak bideratzeko, saiatuko dira beste bide batzuk erabiltzen. Zentzu honetan, Elkarbizitza Batzordeak urteko planaren barruan gai honetan irakasleen prestakuntza eta taldeko lan koordinatuta bultzatuko du.

Irakasleak "gertaera orria" beteko du, gertatutakoa azalduz. Aipatutako "gertaera orria" jokaera desegokia gertatu eta 24 orduko epearen barruan Ikasketa Buruari emango dio.

"Gertaera orria" azaltzen dena zehatz, argi eta ahalik eta modu objektiboen azalduko da. Esaldi zehaztugabeak saihestuko dira. Honela ez balitz, ez lirateke kontutan hartuko hutsegitea tipifikatu edo zigortzeko orduan.

Ikasketa Buruak, portaeraren larritasuna erabakitzeke ahalmena duenak, jasotako "gertaera orria" aztertuko ditu eta bakoitzaren larritasuna erabakiko du. Zalantzak izanez gero, orria bete duen irakasleari berari edo ikaslearen tutoreari informazio gehiago eska liezaieke.

Gertaera orriak egingo dira paperean zuzenean edo bere momentuan zehaztuko den soportean digitalean.

Hori jakin ondoren, eta 48 orduko epe barruan, irakasle horrek ikaslearen familia edo tutore legalarekin, telefonoz hitz egingo du gertatutakoa azaldu eta “gertaera orrian” idatzikoa irakurtzeko.

Portaera hauek behin eta berriro errepikatzen dituzten ikasleen kasuan, familiari gertatutakoa azaltzeko erantzukizuna ez da irakasleena izango, baizik eta zuzendaritzarena.

Irakasleak usten duenean ikusitako portaera benetan larria dela, zuzen Zuzendaritzara joanen da gertatutakoaren berri ematera. Hori egin ondoren idatziz azaldu beharko du hori.

Ikasketa Buruak portaera desegokien erregistroa eramango du. Hartutako hezkuntza neurrien erregistroa ere eramango du.

Hezkuntza neurriak erabakitzerakoan, kontutan hartuko da portaeraren larritasuna.

Portaera ez dela larria erabakitzen baldin bada, irakasleak berak eta tutoreak erabakiko dute hezkuntza neurria eta ikasketa buruari jakinaraziko diote.

Portaera elkarbizitzarako bereziki larria dela erabakitzen denean, Ikasketa Buruak berak arduratuko da familiari gertatutakoa esateko eta berak erabakiko du zein prozedura erabiliko den hezkuntza neurria erabakitzeko. Hau egiterakoan jarraian zehazten dena hartuko du kontutan:

- Erabakiko den ea ikasleari eskainiko zaion bitartekaritza prozesuan sartzea edo bizikidetzak konpromisoa hartzea. Honela izango balitz, prozesuan bertan zehazten dena egingo da.

- Bestela, Ikasketa Buruak erabakiko du zein prozedura erabiliko den espedientea egiteko. Hiru aukera hauek izanen dira:

- Laburtua
- Ohikoa
- Adostutakoa

Prozedura laburtua erabiliko da ikaslearen jarraipena beharrezkoa ikusten den kasuetan eta hezkuntza neurri bat hartzea komeni den kasuetan. Har daitezkeen hezkuntza neurrietan ez da egongo ikastetxera joateko eskubidea eteten duena.

Ohiko prozedura erabiliko da portaera larria den kasuetan eta Ikasketa Buruak espedientea irekitzea erabakiko du eta instruktorea izendatuko du. Instruktorea zozketaz erabakiko da ikaslearen irakasle ez direnen artean. Prozedura honetan jarraituko zaio **47/2010 FDaren 20, 21, eta 22**. Artikuluetan esaten denari.

Adostutako prozedura aipatutako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen **Foru Dekretuaren 23. Artikuluan** zehazten den moduan aplikatuko da.

Edozein hezkuntza neurria aplikatu baino lehen beharrezkoa izanen da telefonoz zein idatziz, familiari horren berri ematea.

## **8. Eskola absentismoaren protokoloa**

Justifikazio idatzirik ez duten berandutzea edo ez etortzeak, justifikaziorik gabekotzat hartuko dira. Irakasleek tutorearekin duten lehenengo klasean emango diete ez etortzea edo berandutzearen justifikazioa. Mota bereko justifikazioak, pisuko arrazoirik gabeko ez etortzeak edo berandutzeak errepikatzen baldin badira, tutoreak bakarrik onartuko ditu dokumentu ofizial batez justifikatzen direnak. Hau tutoreak berak erabakiko badu ere, posible izango du gaia zuzendaritzarekin

komentatzea.

Ikaslearen agendan idatzitako justifikazioak edo emailaz institutura edo tutoreari bidalitako justifikazioak onartuko dira.

Ikasleak azterketa edo ebaluazio froga zehatza duen egun batean huts egiten baldin badu, familiak ez etortze hori idatziz justifikatzeaz gain, ez etortzea eta horren arrazoiak telefonoz jakinaraziko dizkio irakasleari berari. Azterketa ikaslea itzuli ondoren lehenengo edo bigarren saioan egingo da eta froga horren kalifikazioa bakarrik hartuko da kontutan familiak paragrafo honetan esaten dena betetzen baldin badu. Ikasle baten ez etortzeak azterketa edo froga duten egunetan behin eta berriro errepikatzen baldin badira, puntu honen lehenengo paragrafoan esaten den bezala jokatuko da.

### ESKOLA ABSENTISMOAREN KASUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA EGIN BEHARRAK, ARDURADUNAK ETA ESKU-HARTZE MAILAK

ARDURADUNA	EGIN BEHARRA	DENBORALIZAZIOA	ESKU-HARTZE MAILA
Irakasleak	Ikasleen berandutzeak eta ez etortzeak EDUCAn idaztea	Hurrengo asteko asteleheneko goizeko 8,30etarako	1 maila
Tutoreak	Justifikazioak eskatu	Tutoretza saioaren hasieran	1 maila
	Justifikaziorik gabeko ez etortzeak duten ikasleekin elkarrizketa	Tutoretza saioa bukatuta	1 maila
	Familiei idatziz edo telefonoz justifikazioak eskatu (I gehigarria)	Tutoretza lan ordua	1 maila
	Ikasketa Buruari justifikaziorik gabeko ez etortzeen datuen berri eman	Tutoreen bilera ordua	1 maila
Ikasketa Burua	Ez etortzeen jarraipena	Astero	1 maila
	Jaso tutoreengandik ez etortzeei buruzko informazioa	Tutoreen bilera ordua	1 maila
	Justifikaziorik gabeko ez etortzeak dituzten ikasleen familiekiko bilera (12-24 arteko kopurua azken hilean edo ikasturte osoko %20a) (I gehigarria)	Zuzendaritza orduak	1 maila
	Absentismoaren aurkako komisioa jakinaren gainean jarri (ikasturte osoko % 20tik gora edo azken hilabeteen 24tik gora) (II gehigarria)	Zuzendaritza orduak	2 maila
	Eskola absentismoaren espedienteak zabaltzea (II gehigarria)	Zuzendaritza orduak	2 maila
	Ikasle horren irakasleak jakinaren gainean jarri	"Gestión escolar"	2 maila
Orientatzailea	Jaso Ikasketa Buruarengandik justifikaziorik gabeko ez etortzeei buruzko informazioa	Koordinazio orduak	2 maila
	Eman Gizarte Zerbitzuetan ertaineko absentismoaren maila duten ikasleen berri (azken hilabeteen 24 baino gehiago edo ikasturte osoko % 20tik gora)	Lan ordua	2 maila
Zuzendaritza	Eskola absentismoaren	Zuzendaritza orduak	3 maila

eta orientatzailea	aurkako komisioa, Gizarte Zerbitzuak eta Adin Gutxikoak babesteko Zerbitzuak jakinarean gainean jarri		
	Jakinarazi familiari 3. mailara igarotzeko erabakia		3 maila

## BESTE XEDAPEN BATZUK

### I. ERREKLAMAZIOAK

Erreklamazioen prozedura araututa dago 49/2013 FORU AGINDUAN, maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ematen diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleak ebaluatzeko prozesuan erreklamazioak egiteko sistema ezartzen duenean.

### II. DBHko hirugarren mailatik aurrera, eskoletara ez joateko eskubidea.

1. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik aurrerako ikasleek eskolara ez joateko taldeka hartzen dituzten erabakiak ez dira justifikatu gabeko hutsegite gisa hartuko, 47/2010 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian zehazten diren baldintza hauek betetzen badira:

- a) Hezkuntza arloko erabakiekiko desadostasunengatik izan bada.
- b) Ikastetxeko zuzendaritzan eta ordezkarien batzarrean aurkeztutako proposamena, deialdia egiten dutenek sinatutako idazki arrazoitu batenbidez. Idazkia hutsegitearen eguna baino gutxienez hiru eskola egun lehenago aurkeztu beharko da, eta deialdiaren arrazoiak, dei-egileak, eguna eta ordua aipatu beharko dira.
- c) Proposamena ikastetxean DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasle guztien %15ek sinatu beharko dute gutxienez, edo DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasleen ordezkarien %75ek.
- d) Ikasleek, bozketa sekretuaren bidez, eskolara ez joateko proposamena onartzea edo errefusatzea gehiengo osoz, ordezkariaren argibideak jaso ondoren. Guztirako emaitza eta gelaz gelakoa ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio ordezkarien batzarrak, aurreikusitako jarduketak hasi baino bi eskola egun lehenago gutxienez.

2. Ikastetxeko zuzendaritzak aztertuko du betebeharrak betetzen diren eta, horren arabera, ebatziko du eskolara ez joate hori justifikatu gabeko hutsegitez hartzen den edo ez. Ebazpen horren berri DBHko hirugarren mailatik aurrerako ikasleei, irakasleei, ordezkarien batzarrari eta ikastetxeko guraso elkarteetako buruei jakinaraziko zaie idatziz.

3. Dena dela, ikastetxeko zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu eskolara huts egiteko erabakia betetzen ez duten ikasleek foru dekretu honen 4. artikuluan aipatzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.

### **Gizarte erantzukizuna**

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoa kontuan harturik, irakasleek, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen betebeharrak galarazi gabe, eta bete behar duten eginkizunari kasu eginez, oinarritzko gizarte zerbitzuei jakinarazi behar dizkiete, ikastetxeko zuzendaritzaren edo orientazio departamentuaren bidez, adingabe bat arrisku egoeran



edo babesik gabe gelditzeko sor litezkeen egoerak, bereziki kontuan hartuz eskolara ez joateari lotutako alderdiak.

### ***Erantzukizun penala***

1. Ikastetxeko zuzendaritzak Fiskaltzari jakinaraziko dio arau-hauste penaltzat har daitekeen edozein egintza.
2. Ikastetxe bateko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren jokaeren ondorioz, Fiskaltzak irekitzen badu Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako prozedura bat, horrek ez du ekarriko foru dekretu honen 20. artikuluan araututa dagoen ohiko prozedura etetea, bietan egintza berberak aztertzen badira ere.

### ***Erantzukizun zibila***

1. Banaka edo taldeka, nahita edo axolagabekeriagatik, ikastetxeko instalazioetan edo materialetan, edo eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren ondasunetan, kalteak eragiten dituzten ikasleak behartuak egonen dira eragindako kaltea konpontzera edo konponketaren kostu ekonomikoa beren gain hartzera, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala.
2. Ikastetxearen edo eskola elkarteko edozein kideren ondasunak lapurtzen dituzten ikasleek lapurtutakoa itzuli beharko dute edo itzulketaren kostu ekonomikoa beren gain hartu, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala, eta ikastetxean berean egin litekeen zuzenketa deusetan galarazi gabe.
3. Ikaslea adingabea bada, haren gurasoak edo legezko ordezkariak erantzule zibilak izanen dira, legeetan ezarritakoaren arabera.